



## HERRIKO KONTSEILUKO ERABAKIA ORTZAIZEKO HERRIA

### 2022ko martxoaren 1eko bilkura

Bi mila eta hogeita batgarren urtean eta 2022ko martxoaren lehenean, zortziak eta erdietan, herri honetako Herriko Kontseilua, erregularitasunez deitua izanik, legeak manatzen duen kopuruan bildu zen, Herriko etxeko gelan, Jean-Marc OÇAFRAIN Auzapezaren lehendakaritzapean

**Hor zirenak** : AYÇAGUER Elorri, CHAMALBIDE Corinne, DACHAGUER Peio, FALXA Odile, GOICOECHEA Iñaki, IDIART Claudine, IÑARRA François IRIART Jean Claude, JORAJURIA Ramuntxo, LEKUMBERRY Xantxo, MATEO Jean François, OÇAFRAIN Jean-Marc, PERUSANSENA Elodie

**Barkatuak zirenak** : CASIRIAIN Elena, HEGUY Antton

**Bilkurako idazkari izendatua izan da** : FALXA Odile

Deialdiaren eguna : 2022ko otsailaren 25a

Afitxatze eguna : 2022ko otsailaren 25a

### **20. ERABAKIA: ALDI BATEKO EDANTEGI PARTAIDETZA HITZARMENAREN IZENPETZEA BESTA BATZORDEAREKIN, 2022. URTERAKO**

Nomenklatura: 6.1.2

Jaun auzapezak oroitarazten dio Herriko Kontseiluari urteko partaidetza hitzarmen bat izenpetua dela Besta Batzordea eta Herriaren artean, oste handiko alkoholizatze fenomenoari lotutako arrisku oro baztertzeko herriko bestak kari. Hitzarmenaren klausulak errespetatzeak Besta Batzordeari edantegi bat 4:00ak arte irekitzeko baimen berezi bat ematea ahalbidetuko du.

Jaun auzapezak partaidetza hitzarmen hau izenpetzea proposatzen du 2022. urterako.

Jaun auzapezaren azalpenak entzun ondotik, eta eztabaidatu ondotik, herriko kontseiluak,

- **BAIMENA EMATEN DIO** auzapezari Besta Batzordearekin 2022. urterako partaidetza hitzarmena izenpetzeko eta gai honi lotutako urraspide oro abiatzeko.

Kide kopurua : 15

Hor zirenen kopurua : 13

Balitzko boz kopurua : 13

ALDE : 13

KONTRA : 0

ABSTENTZIO : 0

Hala erabakia, gainera egun, hilabete eta urtean. Bertaratu diren kideek sinatu dute erregistroan. Araberatasunez ziurtatu erabakia.

ORTZAIZEn, 2022ko martxoaren 1ean  
Auzapeza,  
Jean-Marc OÇAFRAIN

Betegarria bilakatu den akta,  
2022/03/14an publikatu edo notifikatu ondoan,  
Eta Prefeturan pausatu ondoan 2022/03/14an.

